

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



AUTORE EZEZAGUNA. ARRANTZALEEN MUSEOA. BERMEO. BIZKAIKO FORU ALDUNDIA.

BERMEOKO SERRATS GAZITZE ENPRESAKO LANGILEAK

XIX. mendearen erdialdean, Bermeo kontserba eta eskabetxe fabrika gehien zituen euskal herrietako bat izan zen, Lekeitio eta Ondarroarekin batera. Bisigua, hegaluzea, sardina, antxoa eta berdela bezalako espezieak erabili zituzten gehien kontserba fabrika horiek. II. Karlistaldia amaitu ondoren, kontserba industriak gora egin zuen XIX. mendearen amaierara arte, eta, batez ere, antxoa gazituaren elaborazioak gora egin zuen, kontserba lantegien produktu izarra bilakatuz. XX. mendearen etorrerarekin batera, ga-

zitze fabrika italiar ugari eta holandarren bat euskal arrantza portu nagusietan kokatu ziren. Donostiako Itsas Museoa bezalako erakundeek egindako ikerketa batzuen arabera, garai hartan hasi ziren kontserbak esportatzen Lekeitio eta Bermeotik Ingalaterra eta Amerikara. Artikulua ilustratzen duen irudian, XX. mendearen hasieran Bermeoko Serrats gazitze enpresako langile talde bat ikus daiteke, emakumeak gehienbat, argazkilariarentzat posatzen.